

Funtsezko sozietateak

Hornitzaileen eta bazkideen sarea da, negozio-eredu batek funtziona dezan ahalbidetzen duena. Enpresa batek aliantzak egin ditzake beste enpresa batzuekin, hainbat arrazoiengatik: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko. Ez duelako zentzurik enpresa batek egitea lan dana bera bakarrik.

Enpresa baten optimizazioa datza: kosteen murrizketan, azpikontratazio eta azpiegiturak partekatzea. Arriskuen murrizketa eragitzeko behar da: Ziurgabetasun gutxiago, arrisko ekonomiko gutxiago. Aliantza egiten duten enpresek baliabideen lorketarako beste enpresa batzuk erabiltzen dute baliabide espezifikoak, ezagutza, lizentziak eta bezero berriak.

Hainbat sozietate mota daude: Lehiakideak ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak Merkatu-segmentu beragatik edo baliabide berberengatik lehiatzen ez diren negozio-ereduak dituzten enpresen arteko aliantzak dira. Haien lankidetzak onuragarria izan daiteke bi aldeentzat. Adibidez, Pizza Hut eta Pepsiren arteko akordioa frankiziaren establezimenduetan freskagarri hori zerbitzatzeko.

Lehiakideen arteko aliantza estrategikoak

Merkatu-segmentu berean lehiatzen diren enpresen arteko aliantzak dira, eta Coopetencia (Lankidetzak + Lehia) izena ere hartzen dute. Asko gertatzen da automobilgintzan. Adibidez, Renault AMC automobilen fabrikatzaile estatubatuarrekin elkartu zen eta kapital-injekzio bat eman zion, aurreko trakzioko autoei buruzko ezagutzaz gain. Renaultek, berriz, AEBko merkatuko ateak irekitzea lortu zuen.

Negozio berriak garatzeko enpresen elkarteak edo Joint Ventures

Bi bazkidek edo gehiagok negozio berri baten garapenean modu kolektiboan parte hartzen dutenean gertatzen da aliantza hori. Enpresa berri bat sortzea edo eragiketen eta aktiboen baterako kudeaketara mugatzea ekar dezake. Horren adibide da BMG diskoetxeak eta Sony konpainiak osatutako joint venture.

Erosle-hornitzaile harremanak

materialen erabilgarritasuna ziurtatzeko. Enpresa batek bere jarduerak garatzeko behar dituen baliabideak eskuratzeko bermatzen duen aliantza mota bat da. Adibidez, gasolindegia-sare bat petrolio-konpainia batekin akordio batera irits daiteke hornidura ziurtatzeko.